Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023

ISBN: 978-84-1370-476-0

Maestro, Pepe

Burrunba susmagarria

Ilustratzailea: Mercè Lopez

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023

ISBN: 978-84-1370-475-3

Maestro, Pepe

Errekan behera

Ilustratzailea: Mercé López

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Bioletaren sekretutegia; 1)

ISBN: 978-84-1370-458-6

Maestro, Pepe

Ustekabea etxaldean

Ilustratzailea: Mercé López

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Bioletaren sekretutegia; 2)

ISBN: 978-84-1370-459-3

Montero Aguirre, Marina

Mila istorio azalean

Ilustratzailea: Concha Pasamar

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun

Madrid: Bookolia, 2022

ISBN: 978-84-18284-67-0

Santiago, Roberto

Suaren zirkuaren misterioa

Ilustratzailea: Enrique Lorenzo

Barakaldo (Bizkaia): Sm Ikasmina, 2023 (Futboleroak; 8)

ISBN: 978-84-1909-785-9

10 URTETIK AURRERA

Atxaga, Bernardo

Holaxe bizi da Xola

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Erein, 2023

ISBN: 978-84-9109-878-2

Castro, Francisco

Joan, joana

Itzultzailea: Mitxel Murua

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2023 (Erria txikota!; 3)

ISBN: 978-84-9868-822-1

Ferreyra, Lucas

Piqo-Piqo eta indotxinako txipiroi erraldoi izugarria

Itzultzailea: Bego Montorio

Bilbo: Astiberri, 2023

ISBN: 978-84-18909-81-8

Goikoetxea, Irati

Nor

Ilustratzailea: Irimarra

Oiartzun (Gipuzkoa): 1545, 2023

ISBN: 978-84-127245-3-0

Kamio, Garazi

Bikini

Ilustratzailea: Alex Orbe

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2023 (Xaguxar; 250)

ISBN: 978-84-1360-367-4

Perez, Sébastien

Munstroak

Ilustratzailea: Stan Man

Itzultzailea: Bakun S.L (Amets Santxex Munain)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Izaki Miragarrien entziklopedia)

ISBN: 978-84-1370-478-4

Roumiguière, Cécile

Herensugeak

Ilustratzailea: Yvan Duque

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Izaki Miragarrien entziklopedia)

ISBN: 978-84-1370-479-1

Usandizaga, Aintzane

Ez duzu sinetsiko

Ilustratzailea: Asier Iturralde Gaston

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2023 (Axuri beltza; 47)

ISBN: 978-84-19319-70-8

12 URTETIK AURRERA

Atutxa Zamkova, Anastasia

Sorginaren hil ala biziko sekretua

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Ekin; 52)

ISBN: 978-84-1370-497-5

Diet, Elise ; Hariñordoki, Antton

Haize leizean

Ilustratzailea: Ainitze Butron

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2023 (Taupadak; 64)

ISBN: 978-84-1360-232-5

Hernández Chambers, Daniel

Erraldoien herrialdea

Ilustratzailea: Antonio Lorente

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Gauerdiko begiak; 2)

ISBN: 978-84-1370-402-9

Hernández Chambers, Daniel

Itzalik gabeko izakiak

Ilustratzailea: Antonio Lorente

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Gauerdiko begiak; 1)

ISBN: 978-84-1370-405-0

Hernández Chambers, Daniel

Orcanstarren leinua

Ilustratzailea: Antonio Lorente

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Gauerdiko begiak; 3)

ISBN: 978-84-1370-406-7

14 URTETIK AURRERA

Constant, Gwladys

Maite nau, ez nau maite

Itzultzailea: Usoa Wyssenbach Ibarra

Bilbao: Desclée de Brouwer, 2023

ISBN: 978-84-330-3226-3

Francés González, José Antonio

Bi gehi bi (eta nire nerabegaroko beste enigma batzuk)

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023 (Ameslari; 32)

ISBN: 978-84-1370-461-6

Reguera, Galder

Camus gaztearen eskutitzak

Itzultzaileak: Galder Reguera; Izaskun Gracia Quintana

Barakaldo (Bizkaia): Giltza, 2023

ISBN: 978-84-8378-660-4

16 URTETIK AURRERA

Etxeberria Garro, Xabier ; Etxeberria Garro, Martin

Artxipelagoa

Ilustratzailea: Alex Sanvi

Kolorea: Sedyas

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2023

ISBN: 978-84-1360-295-0

LIBURU OSO GOMENDAGARRIAK

2 URTETIK AURRERA

Carle, Eric

Burutik behatzetara

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-340-0

Liburu zoragarri honetan, Eric Carle haur literaturako maisu handiak zenbait animalia imitatuz jolastera gonbidatzen du irakurlea. Erabilitako erritmoa oso egokia da haurrek irakurketaz gozatzeko eta irakurritakoa ulertzeko: orrialde bakoitzean, egitura bat errepikatu eta erronka berri bat iradokitzen da. Gorputz-atalak identifikatzen laguntzen duen ipuin ilustratu hau 1997an argitaratu zen lehen aldiz, ingelesez, *From Head to toe* izenburuaz, eta orain kartoi-orrizko edizio zaindu batean ekarri da euskarara. Funtsean, ondo pasatzeko liburu bat da, lehen irakurleei zuzendua. Mundu guztiko animaliak erakusten ditu, ilustrazio zein baino zein politagoak baliatuta. Azken orrira arte disfrutatzen den maisulana da: Eric Carlek bere collage-teknika bereizgarriaz egindako ilustrazio koloretsu eta alaiak, izan ere, benetako artelanak dira beren baitan.

Escoffier, Michaël

Larri nago!

Ilustratzailea: Karine Bélanger

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023

ISBN: 978-84-1370-350-3

Untxi bat larri dabil, komunera joan nahi du, baina okupatuta daude guztiak. Atea zabaltzean, beti topatzen du norbait barruan. Agian txikiegia da okupatuta dagoela adierazten duen argi gorria ikusteko, baina ez du etsiko. Komun batetik bestera ibiliko da, hutsik dagoena topatu arte. Azal eta orri lodiko album ilustratu honek, orri tolesgarrien bidez, jolas bat proposatzen du: komuneko atea ireki behar da barruan zer dagoen ikusteko. Atean agertzen den ikurrak emango digu pista. Zabalduz gero, era askotako pertsonaiak azalduko dira, eta irakurleak gozatu egingo du komun barruko xehetasunekin. Komuneko paperaren biribilkia, adibidez, desberdina da pertsonaiaren arabera: otsoarena arrosa kolorekoa da, txerrikume-irudiekin apaindua; sorginarena, grisa, eta armiarmak ditu. Hormetan pintaketak daude, baita beste bitxikeria dibertigarri batzuk ere.

Zalantzarik gabe, umorea da nagusi istorio honetan. Testu eta marrazki guztiak umore finez zipriztinduta daude. Ilustrazioak nabarmentzen dira: koloretsuak eta bizi-biziak dira, eta kontakizunaren erritmoa areagotzen dute. Testua, berriz, laburra, erraza eta zuzena da. Ekintza bat errepikatzen da behin eta berriz: untxi txikia korrika doa eta ate bat irekitzen du. Egitura narratibo errepikakor hori pizgarri da haurarentzat, istorioa

ulertzeraz, bertan modu aktiboan parte hartzeraz eta azkeneraino irakurtzen jarraitu nahi izateraz bultzatzen baitu.

Dena da atsegina liburu honetan: testura leuna eta forma biribilduak, koloreak, pertsonaiak, egitura eta istorioa bera. Ziur gaude liburuaren irakurketan parte hartzen duten guztiek barre egingo dutela eta tarte atsegin bat pasatuko dutela elkarrekin. Ez dugu ahaztu behar umoreak bizitzako etapa guztietan duela garrantzia. Barre egiteak zoriontsuago egiten gaitu.

Gako-hitzak: umorea – irakurketa – zoriontasuna – patxada – elkarrekin pasatako denbora.

Azkar! Arin! Lagundu irakurzaletasunaren eta umorearen ateak irekitzen!

Gomi, Taro

Bainura!

Ilustratzailea: Taro Gomi

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-339-4

Iritsi da egunaren amaiera, eta, lotara joan aurretik, bainuaren ordua heldu da. Ipuineko protagonistari, Manexi, haur gehienei gertatzen zaien bezala, nagikeria ematen dio bainatzeak. Baina Taro Gomik bainuaren ordua oso dibertigarria izan daitekeela erakutsiko digu album eder honetan. Bainatu aurretik, arropak erantzi egin behar dira banan-banan, eta idazleak, ekintza horrekin, arropen izenak erakusten dizkigu, eta gorputzeko atalak zein diren ere esaten digu, graziaz eta naturaltasunez.

Kontakizuna ama-eme batzuen arteko elkarrizketa bat da, bainuaren eguneroko ohituraren ingurukoa. Baina hain ohikoa den ekintza hau zerbait dibertigarri bihurtuko du idazleak bere hizkuntza zuzen eta sinplea erabiliz eta onomatopeia eta hitz-jokoaren bitartez.

Taro Gomi, ipuin erakargarri honen idazlea ez ezik, ilustratzailea ere bada. Haren marrazkiak oso adierazkorak eta hurbilak dira, eta oso umoretsuak. 2010. urtean finalista izan zen Andersen sarian, eta orain, 2023. urtean, Kalandraka editorialak osteraz berrargitaratu du.

Ipuin hau oso egokia izan daiteke eguneroko zereginari aurre egiteko orduan hurrengo autonomia sustatzeko, oso aproposa ahoz gora irakurtzeko, sorpresaz beteta dagoelako eta amaierak ustekabean harrapatuko gaituelako.

4 URTETIK AURRERA

Carle, Eric

Armiarma oso lanpetuta dago

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-331-8

Armiarma oso lanpetuta dago, zalantza izpirik gabe, Eric Carleren funtsezko lanetako bat bilakatu da. Lehen aldiz *The Very Busy Spider* izenburuaz argitaratu zen, eta orain euskaraz gozatzeko aukera dugu. Erik Carlek hirurogeita hamar albumetik gora idatzi eta ilustratu zituen bere bizitzan zehar, tartean *Gose handiko beldarra* ipuin saritu eta ezaguna. Oraingo honetan, idazleak oso lanpetuta dagoen armiarma bat dakarkigu begien aurrera. Eskuz margotutako paperak eta collage-teknika erabiliz sorturiko ilustrazio koloretsu eta distiratsuen bidez kontaturiko ipuin bat da, armiarmak gorputzetik ateratzen duen zetazko haria bezain esaldi leun eta finez lagundua. Baserriko animaliak banan-banan hurbilduko zaizkio bere amarauna ehuntzen ari den armiarma bati. Animaliek jolastu egin nahi dute, baina armiarma oso lanpetuta dago beti. Naturarekiko maitasun eta behaketatik jaiotako istorio honetan, umeez izugarri gozatuko dute orriz orri, pasartez pasarte azken orriraino eramango dituen kontakizun batean barneratuz.

Carle, Eric

Adiskideak

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-357-8

“Amets egiteko liburuak” bilduma arrakastatsuen barnean argitaratutako istorio honek Eric Carleren mundura hurbiltzen gaitu. Carle Syracusen jaio zen, New York estatuan, 1929an, baina, zazpi urte zituela, Alemaniara joan zen bizitzera gurasoekin. Txikitako oroitzapen onen lurrinak eta atzean utzi behar izandako lagun baten nostalgiak inspiraturiko istorioa da, urrutira egindako etxe-aldatze baten zantzuak samurtasun handiz jorratuz adiskidetasunaren benetako balioa lantzen duen albuma, ehunezko paper koloretsuko collage-ilustrazio zoragarri osatua. 2013an argitaratu zen lehen aldiz, ingelesez, *Friends* izenburuaz. Faltan sumatzen duen lagunarekin jolastea lortzen duen haur baten kontakizuna da, galdu nahi ez duen hori berreskuratzeko bidaia moduko bat, erakusten duena posible dela norbere benetako altxorra gordetzea, beharrezkoa eginez, behar den denboran ekinez, egoera dena delakoa izanik ere. Liburuak probetxu handia ateratzen die bidean ikasteko eta jolasteko dauden aukera guztiei, eta benetan axola duten gauzen alde borrokatzeko gonbite irmo eta hunkigarria egiten digu.

Love, Jessica

Sirenak

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Madril: Kókinos, 2023

ISBN: 978-84-19475-29-9

Jessica Lovek idatzitako lehen liburu honek hainbat sari jaso ditu; horien artean, Opera Prima Bologna Ragazzi saria, 2018an. Egia esan, ez gaitu harritzen, ezin hobeto lantzen baitu genero-identitatearen gaia, literatura alboratu gabe.

Julian ikusten dugu liburuaren azalean: ezpainetan margoa, buruan garoz egindako orrazkera eta gerrian gortina batekin eratutako soineko bat. Gainera, beso bat altxatuta dauka, garaipen-sentipena adierazteko. Hala ere, istorio honetako protagonista, Julian ez ezik, haren amama ere bada.

Juliani izugarri gustatzen zaizkio sirenak, eta, etxera metroz doala, sirenaz mozorrotzarekin amets egingo du; hala, bere ametsa egia bihurtuko du etxe barruan. Halako batean, amamak Julian ikustean, eskutik heldu eta kalera aterako du. Kanean, sirenen desfile koloretsu batekin bat egingo dute biek.

Hain zuzen ere, amamaren naturaltasun hori da, agian, kirrinka egiten digun kontu bakarra; izan ere, oraindik badago zer landu, tamalez. Zentzu horretan, 2030eko Garapen Iraunkorraren Agendako helburuetako bat genero-berdintasuna da.

Hitz gutxi eta irudi koloretsuak erabilia, istorio ikusgarri eta ederra osatzea lortu du Jessica Lovek. Are gehiago, gure begirada kritikoa ere pizten du, gizartean hain beharrezkoa dugun eraldaketa helburu. Kókinos argitaletxeak argitaratua du jada gazteleraz bikote honen beste istorio bat: *La boda*. Itzulpenaren zain geratzen gara.

Nogués, Alex

Ile bat zopan

Ilustratzailea: Guridi

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2023 (Txo!)

ISBN: 978-84-19319-36-4

Familia osoa mahaian eserita dago eta afaltzera doa. Barazki-zopa dago gaur guztientzat. Eta hara non, eta ile bat zopan! Hala ere, ile bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Euli bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Badakizu zer den zopan ager litekeen gauzarik bitxiena? Auskalo!

Izenburuaren ondorengo azpтитulu edo azalpen modukoak dioen bezala, “ipuintxo absurdo bat” dakarkigute bi egile hauek proposamen honetan. Izan ere, argi eta garbi uzten dute: oso istorio zentzugabea da!

Bere horretan normala den egoera batetik normala ez den egoera batera eramango gaitu kontakizunak, gu alde batetik eta ipuineko protagonistak bestetik, “in crescendo” doan gertaera-kate batean. Istorioak beste mundu batean murgiltzen gaitu, edozer gerta daitekeen mundu batean, magiaren munduan. Batzuei harridura sortuko die eta beste batzuei, berriz, barregura.

Absurdoa, literaturan, logikari desafio egiten dion idazkera da, narratiboki aurreikusezina, pertsonaiak koherentziarik gabeak izan baitaitezke, nahiz eta benetako agertokietan mugitu. Absurdoak, artean, imajinazioa eta sormena goratzen ditu, mugarik gabe. Hor datza haren edertasuna. Eta haurrak hartzaile aproposak dira umore mota honekin konektatzeko.

Noguesen testua eta Guridiren ilustrazioak sinpleak eta txukunak dira. Irudiak argiak dira, zehatzak. Ia denetan kolore bat edo bi erabiltzen dira soilik, gorria eta beltza, eta noizean behin gatz apur bat tartekatzen da beste koloreren batekin. Tipografia ere oso ondo aukeratuta dago, beltzaren eta gorriaren bikromian estilo batasuna mantenduz eta batzuetan letra larriarekin jolastuz. Egileen eta editoreen edizioa ederra eta zaindua da zinez.

Oso album dibertigarria da: edozein plater ezusteko esperientzia bihur daitekeela erakusten du, eta ez bakarrik sukaldaritzari lotuta. Liburu ezin hobea da ondo pasatzeko gogoia duten irakurleentzat.

Pintor, David

Erbia eta Dortoka: bigarren aukera

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-337-0

Lasterketek gidatzen dute *Erbia eta dortoka: bigarren aukera* liburua, Esoporen “Erbia eta dortoka” alegia klasikoaren berrinterpretazioa.

Lehenengo lasterketa galduta eta arrazoia ulertu gabe, erbiak bigarren aukera eskatuko dio dortoka irribarretsuari. Baita dortokak eman ere, lasterketa hauetan sormena gailentzen baita dortokarekin batera.

Erbia bere berezko bizkortasuna baino ez du baliatzen dortokaren aurkako lehian. Dortokak, ordea, irudimenaren alde eginez eta irudimena elikatzeko baliabide anitz erabiliz, etengabe irabazten dio erbiari, hura amorratu arte. Erbiak ez du amorru hori beste era batera bideratzen, eta ez du sormenik erabiltzen egoera bere alde eraldatzeko.

Ondorioz, dortoka mantso, langile eta etengabe irribarretsua erbiari behin eta berriz irabaztea lortzen du bere gaitasun guztiak martxan jarrita.

David Pintorrek berridatzi eta modu bikainean ilustratu duen ipuin hau oso dibertigarri eta irudimentsua da. Irakurlea jakin-minez eramaten du orri batetik bestera, hurrengoetan zer gertatuko ote den jakiteko irrikan.

Joslin, Sesyle

Familia txikia

Ilustratzailea: John Alcorn

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2023

ISBN: 978-84-9172-321-9

Album honek, beste lau ipuintxorekin batera, bilduma bat osatzen du. Honela dute izenburua beste lau ipuintxoek: 1. *Familia txikia*; 2. *Oturuntza*; 3. *Pailazoa* eta 4. *Andere ederra*. Bukaeran, erabilitako hiztegiaren lexiko elebidun bat dakar, euskaraz eta ingelesez. Lehen aldiz 1964an argitaratu zen, frantsesez, haur txiki amerikarrentzat, frantsesa ikasteko eskuliburu xeble moduan.

Ipuintxoak, zoragarriro absurdoak laurak ere, esaldi xumeekin eta eguneroko hitzekin idatzita daude, eta errepikatuz eta batuz doaz egitura metatzaile batean. Eguneroko hitzetatik abiatuta, esaldi sinpleak eraikitzen dira; batzuk “zerbaiten barruan beste zerbait” egituraz sortzen dira; beste batzuk, berriz, “elementu handienetik txikienera” hurrenkera baliatuz, edo antzeko beste joko batzuen bidez. Hala, uler daitekeen gai baten inguruan, hiztegia garatuz joaten da. Bukaera aldera, ipuintxoek erorialdi absurdo bateraino garamatzate.

Narrazio-kizkur sinpleen moduan eraikitako istorio labur hauek oso barregarriak gertatu ziren beren lehen helburu hezitzaileaz haratago. Horrela, aproposak suertatu ziren haurrei txiki-txikitatik kontatzeko, beren laburtasun, erritmo nahiz bukaera zoro eta absurdo horiei esker.

John Alcornenak dira ilustrazioak. Deigarriak egiten zaizkigu erabilitako koloreak, baita irudiei emandako estiloa ere: koloreak biziak dira, eta, ilustrazioetan, pertsonaien jantziek eta apaindurek XIX. mendeari egiten diote erreferentzia, eta seguru aski horrek eman dio liburu honi, 1964an argitaratu zenetik, halako estilo antigoalekoa. Ilustratzaile hau diziplina askotako artista izan zen; diseinatzaile eta ilustratzaile gisa egindako lanagatik 60ko eta 70eko hamarkadetako pop estiloaren ordezkari izan da. Garai hartan, Federico Felliniren hainbat filmen kartelak eta letrak egin zituen, baita iragarki ugari ere, berehala ezagutu daitekeen pop estetika horretan. Haurrentzako zenbait liburu ilustratu zituen arren, hau da euskarara ekarria izan den bakarra.

Zorioneko gaude, Pamiela argitaletxeak, Kalandraka argitaletxearekin lankidetzan, behin eta berriz liluratsen baikaitu haurrentzako liburu zahar ezagun edo ezezagunen berrargitalpenekin.

6 URTETIK AURRERA

Figueras, Nuria

Bisita

Ilustratzailea: Anna Font

Itzultzailea: Joxe Irazu

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2022

ISBN: 978-84-9172-358-5

Bisitan datorren protagonistak hartzen du istorio honen zati handiena: berak betetzen du kontakizun osoa, bai ilustrazioetan hartzen duen tokiagatik, bai haien interpretazio eta ulerkeran irakurleari eskatzen dion lanagatik. Ilustrazioen eta idatzizko kontakizun zehatz, xume eta sakonaren arteko elkarrizketak barne hausnarketara daramate istorioko beste protagonista, eta, harekin batera, baita irakurlea bera ere. Bakardadeaz, konpainiaz, isiltasunaz eta inguruko soinuez pentsatzera gonbidatzen gaitu liburu eder honek.

Liburuaren azalean ikus daitezkeen kolore guztiek betetzen dute argizatua dirudien album hau. Album ilustratuen Compostela saria jaso zuen 2023an.

Hughes, Emily

Basati

Itzultzailea: Garazi Ugalde Pikabea

Oiartzun (Gipuzkoa): 1545, 2023

ISBN: 978-84-127245-0-9

Haur basati bat jartzen du Emily Hughes egileak istorio honen muinean. Liburuaren azala ere bete-bete egiten du haren aurpegiak.

Haur honen istorioaren zati bat kontaktzen da *Basati*-n, bere bizilekutik urruntzen duteneko, hain zuzen.

Emily Hughesez aldatuta erakusten digu haur basatien inguruan jaso ohi dugun ikuspuntua, animalia arrotz eta arraroak haur basatia ez beste gizakiak baitira.

Gizaki horiek, gainera, triste, atsekabetuta eta haserre azaltzen dira ilustrazioetako askotan, zorientasunetik urrun. Horrekin batera, naturatik urrunago dagoen zibilizazio hori ez-natural eta basatizat aurkezten da. Eta ilustrazioek bikain erakusten dute bi testuinguruen arteko kontrastea.

Liburuan agertzen den guztiak, bai idatzizko kontakizunak zein ilustrazio osatu eta biziak, ematen dute zer hausnartua gure gizarteaz. Horrekin guztiarekin batera, begirada aldatzeko gonbitea luzatzen digu autoreak. Zalantzan jartzen du gizarte "zibilizatuak" eskaintzen duena, norberaren zorientasuna testuinguruak eta ikasitakoak baldintzatzen dutela erakutsiz.

Edizio koloretsu, erakargarri, detailez bete eta oso zainduan dator *Basati*.

Majewski, Marc

Tximeleta haurra

Itzultzailea: Ibon Plazaola Okariz

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2023

ISBN: 978-84-9868-785-9

Gogoz ari da liburu honetako protagonista, haur txiki bat, tximeletak marrazten: mota askotakoak egiten ditu, baina berarentzat egokiena izango dena bilatzen ari da; “Ni tximeleta naiz” esaten digu. Asmatzen duenean, laranja koloreko hego eder batzuk egingo ditu, eta tximeletaz jantzita irtengo da etxetik, hasieran kezka edo lotsa apur batekin akaso.

Hala ere, pozik, aske, gustura sentitzen da, “haizeak eraman nazala lorez lore”... harik eta betiko lagunekin topo egiten duen arte. Haien jarrera isekariaren aurrean, hegoak ezkututzen saiatzen da, baina alferrik: lagunek iraindu, lotsarazi eta mespretxatu egiten dute, eta hegoak ere hausten dizkiote.

Suminduta eta etsita, hegoak botako ditu, eta, amorrus beteta, etxean sartuko da. Baina han dago aita, eta aitak maitasuna eta konfiantza emango dizkio, gertu dagoela erakutsiko dio, adorea, autoestimua eta konfiantza berreskuratzen eta bere bidea egiten lagunduko dio; aitaren laguntzarekin, hego berriak josiko ditu. Berriro ere haur talde berarekin aurrez aurre topo egitean, kikildu beharrean, hegoak harrotasunez zabaldu eta, haien harridurarako, hegan egingo du.

Badira liburu batzuk testu askorik behar ez dutenak istorio bat kontatzeko. Horixe gertatzen da Marc Majewskik egindako album hunkigarri honetan. Egilearen ilustrazio zoragarriek istorioan murgilduko gaituzte. Oso adierazkorak eta ederrak dira, eta kolore bizikoak. Marrazkiak bi orrialdetan zabaltzen dira, eta testu gutxirekin edo, batzuetan, testurik gabe agertzen dira. Natura oso presente dago, protagonistaren mundu fantastikoaren isla.

Frantzia jaiotako ilustratzaile honek Benjamin Lacombe artistarekin ere lan egin izan du. Esku artean daukagun liburua beraren haurtzaroan oinarrituta dago. Egileak, alde batetik, ezberdintasunaz hitz egiten digu, desberdina izatearen adorea —adorea behar baita besteen arbuio eta ulertezintasunari aurre egiteko—, baita bide horretan gertu ditugun pertsonen maitasunaren eta hurbiltasunaren garrantziaz ere; bestetik, estereotipoen aurreiritzien hausnarketara bultzatuko gaitu.

Romero, Martín

Uxio eta lagunak

Itzultzailea: Bego Montorio

Bilbo: Astiberri, 2023

ISBN: 978-84-18909-74-0

Komiki dibertigarri honek Uxioren bigarren istorio sail bat eskaintzen digu. Uxio, irudimen handiko mutiko ameslari eta abenturazalea, bere lagunekin batera dator oraingoan: elkarrekin, hainbat abentura ahaztezin biziko dituzte Uxioren mundu magikoan.

Album hau umorezko kontakizun laburrez osatuta dago. Istorioak samurrak dira, originalak, errealismo magikoz zipriztinduak, zoragarriak, eta irakurlea ere parte hartzera gonbidatzen dute batzuetan. Bestalde, ingurumenaren zaintzaren eta inklusioaren balioak ere ageri dira liburuan, sotilki txertatutako mezuen bidez.

Irudiak koloretsuak dira, alaiak, bikain marraztuak, sorpresaz beteak, eta pertsonaiak, kutunak eta maitekorrak. Komikiaren egiturak, letraren tamainak eta tipografiak —letra etzana ere agertzen da—, liburu zoragarria osatzen dute, bereziki irakurtzen hasi berri direnentzat, nahiz eta edozein irakurlek gozatzeko moduko liburua den. Azpimarragarria da Astiberriren argitalpen zaindua.

Horretaz guztiaz gain, irakurleek lagunekin momentu eder bat pasa dezaten, Martín Romerok bi mahai-joko eskaintzen ditu liburuaren babesorrietan.

Ondo pasatzeko liburu ederra.

Soderguit, Alfredo

Kapibarak

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2023 (Txo!)

ISBN: 978-84-19319-23-4

Kapibarak ez ditugu ezagutzen hemen, Euskal Herrian. Karraskarien familiako animalia handienak ei dira, oso arruntak Hego Amerikan.

Kapibarez gain, oiloak, ehiztariak eta txakurra dira kontakizun honetako pertsonaiak. Hasia da ehiza denboraldia, eta, ehiztariengandik ihesi, kapibarak oilategitik oso gertu babestu dira. Oilategiko oiloak urduri daude, orain arte ez baita beste animaliarik sartu beren etxean. Karraskari arrotz, handi eta iletsu hauek iritsi diren momentutik, inork ez du zalantzarik izan: ez dago lekurik haientzat oilategian! Baina hegaztiek, kapibaren egoera larriaz jabetuta, geratzeko aukera emango diete; hori bai, baldintza edo arau batzuekin. Hala ere, txita txiki baten eta kapibara txiki baten arteko hurbiltasunari esker, arauak hautsi eta goitik behera aldatuko da dena.

Kapibarak, egia esan, beste edozein animalia ere izan litezke Alfredo Soderguitek aurkezten digun fabula eder honetan; gizakiak ere izan litezke, edo baita gu geu ere. Immigrazioaren eta xenofobiaren inguruko istorio sinboliko bat da, erakusten diguna ezen, ume-begiekin eta bihotzarekin begiratuz gero, desberdintasunak desagertu egiten direla.

Ipuinaren irudiak samurrak dira, eta liburua komiki bat balitz bezala dago marraztuta, ia zuri-beltzean. Emozioak hitz gutxirekin azalarazten oso trebea dela erakusten digu idazle uruguaitarrak, beharrezkoak diren hitzak baino ez baititu erabiltzen.

Istoriok honek gai bat baino gehiago jorratzen ditu, eta lagunartean lantzeko oso egokiak diren hainbat irakurketa-maila eskaintzen ditu.

Duda barik, liburu zoragarria, historia unibertsala eta kalitate handiko ilustrazioak bateratzen dituena.

8 URTETIK AURRERA

Belmonte, Victor

Non begia, han egia

Itzultzailea: Julio Soto Ezkurdia

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2023 (Txo!)

ISBN: 978-84-19319-71-5

Album hau harrigarria da hasieratik amaierara. Ez zaitu epel utziko! Azaleko irudiak eta izenburuak originaltasuna iradokitzen digute: ***Non begia, han egia***. Horrela dio izenburuak, baina nire egia eta zurea berdinak dira? Edo, beste era batera esanda, errealitatea berdina da guztientzat? Errealitatea, izan ere, zientziak eta ebidentzia enpirikoek definitzen dute. Baina bada errealitateari lotutako beste kontzeptu bat: mundu-ikuskerak. Mundu-ikuskerak gizabanakoaren edo gizartearen ezagutzak, kulturak eta ikuspuntua biltzen ditu bere baitan. Hala, gutako bakoitzak desberdin ikusten eta ulertzen dugu mundua. Liburu honek ikuspuntu ezberdin horiek ulertzen lagunduko digu.

Narratzailea Tomas da, 12 urteko mutikoa. Familiako bazkari batean, mahaiaren bueltan, adin, arraza eta lanbide desberdinetako kideak elkartu dira (txakurra barne). Tomasek bere familia aurkeztuko digu. Ilustrazio bakoitza mahaiaren ikuspegi zenital bat da, hau da, mahaikideak goitik ikusten dira. Eszena errepikatu egiten da, baina aldi bakoitzean «ikuskerak» desberdin bat eskaintzen digu, mahaikide bakoitzak besteez duen ikuspegia erakutsiz

Protagonista daltonikoa da, eta, beraz, zaila egiten zaio kolore gorria eta berdea bereiztea. Osaba musikariarentzat, harmonia da nagusi giroan; amak, zientzialaria denez, formula korapilatsuen arabera ulertzen ditu harremanak. Amonarentzat, ederrak dira denak, nahiz eta ez duen oso ondo ikusten. Mundua hautemateko eta ulertzeko, modu asko eta askotarikoak daude, baina bakoitzak berea du.

Victor Belmont da testuen eta ilustrazioen egilea. Maisuki jokutzen du perspektibekin, koloreekin eta konposizioekin. Testu laburrak eskaintzen dizkigu, xehetasunez beteriko ilustrazioak, umorez zipriztinduak. Dena da sorpresa liburu honetan.

Album oso berezia, gure begirada dibertsifikatzen irakasten diguna. Gustatuko litzaizuke besteek mundua nola ikusten duten jakitea? Ez galdu aukera!

Lartitegui, Ana G.

Tentelontzia

Ilustratzailea: Ana G. Lartitegui

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Bilbo: A Fin de cuentos, 2023

ISBN: 978-84-19684-02-8

Ipuin honen bitartez, historian atzera egingo dugu, zehazki XV. mendearen erdialdera. Izan ere, 1494an Sebastian Brantek argitaratutako izen bereko satirari egiten dio keinu liburuak. Horretarako, pintura flamenkoaren artista garrantzitsuenen irudiak erabili ditu Ana G. Lartitegui, Jeronimo Boschenak eta Pieter Brueghel Zaharrarenak besteak beste.

Asper-asper eginda bizi den mutil batek, tomate landare bat landatu ondoren, auzokide baten ate aurrean utziko du, ohar honekin: “tomateak hamahiru aleetara iristean, kontatzen dituen desagertu egingo da bat-batean”. Hor hasiko da landare honen bidaia zoroa, Brueghel Zaharraren eta Jeronimo Boschen pinturen barrenean nabigatuz, tentelen ontzira heldu arte.

Herri-ipuinen egitura dauka kontakizunak, eta garaiko bizioak irudikatzen dira istorioan: ergeltasuna, burugabekeria, erotasuna, zikinkeria... Era guztietako pertsonaiak aurkituko ditugu bertan: sendalariak, magoak, pikaroak, aingeruak, arimak, piztia fantastikoak, pertsonifikatutako heriotza, izaki groteskoak eta baita egoera eskatologiko gordinak ere. Brueghelen obra askotan bezala, heroia ez da eszenaren erdigunean kokatzen, eta irakurleak egin beharko du bilaketa lana, aipatutako xehetasunetan nahi gabe erreparatuz. Eszena berean, pertsonaien hainbat ekintza ikusten ditugu, mugimendua adierazten duen antolaketa batean. Era berean, Erdi Aroko bizitzaren iruditegi kostunbrista aberatsa eskaintzen digu liburuak: nekazaritza-giroko etxebizitzak, tresnak, janzerak, azokak... garai hartako bizimoduaren isla zoragarria, azken finean.

Album hau argitalpen aparta eta ausarta da zentzu guztietan. Formatu handiko liburua da, non irudi panoramikoetan akuarelen ehundurak nabariak diren. Ilustrazioek testuak berak baino askoz gehiago kontatzen digute; izan ere, artelanetan murgilduko gara orrialdez orrialde. Behin eta berriro irakurtzeko moduko album ilustratu bikaina da, berrirakurketa bakoitza irudimenarentzako bidaia berria izango baita. Irudietan erreparatzeko, behatzaile lanak egiteko, presa barik dastatzeko eta benetan gozatzeko proposamena duzue honako hau. Gainera, Juan Kruz Igerabideren itzulpen goxoak irakurketa oso atsegina eskaintzen digu.

Irakurketaren ondoren margolariei eta margolanei buruz gehiago jakiteko grina sentituz gero, QR bidezko gehigarri didaktikoak ditu liburuak.

Mark, Josephine

Txangoan txiripaz

Itzultzailea: Naroa Zubillaga

Bilbo: Astiberri, 2023 (Txikiberri)

ISBN: 943-84-18909-84-9

Joshepine Markek, minbiziarekin izan zuen bizipen pertsonala inspirazio-iturritzat hartuta, indar handiko istorio zoro eta errealista sortu du. Liburuak, binetaz bineta, irudi biziak eta elkarrizketa gatzdunak erabiliz, irakurlea hunkitzea eta barrea eragitea lortzen du. Transmititzen diren mezuek, sentipenek eta emozioek bihotza zabaltzen diote irakurleari, sentimentalismoa neurri batean alboratuz.

Otsoa eta untxia dira komikiko protagonista nagusiak. Biak ala biak, beste hainbat gaixorekin batera, zain daude basoko kontsultan, harik eta ehiztariak tiroka agertzen diren arte. Untxi ahulak, txiripaz, otso bakartiarengana zihoan tiroa geldiaraztea lortuko du, eta, ondorioz, otsoak otsoen kode sakratua bete beharko du: zaindu egin beharko du bizitza salbatu dion hori.

Ehiztariengandik ihesi, maparik gabe eta ezarritako arauen kontra, untxia eta otsoa ezusteko lasterketa batean murgildu eta gure superheroi bihurtuko dira. Derrigorrean hasitako erlazio hori aldatu egingo da bidaia honetan, eta irakurleak bineten artean irakurri beharko ditu harremanaren nondik norakoak.

Bi pertsonaia karismadun zein ezberdin hauen abenturan barrena, orriak oharkabean pasako ditugu, eta bineta bakarreko orriak arnas gune bihurtuko zaizkigu, bai gogoeta egiteko, bai istorioa bera disfrutatzeke. Irudi koloretsuek eta elkarrizketa zorrotzek biribiltzen dute lana.

Bukaeran, bi orrialde hartzen dituen irudian, mendi-muino batean ageri dira otsoa eta untxia, eguna nola argitzen den ikusten. Litekeena da otsoaren eta untxiaren laguntasunak naturaren beste edozein indarren kontra egitea, baina, hori jakiteko, beharrezkoa da untxiak otsoari zer erantzuten dion jakitea.

Roumiguière, Cécile

Nasha

Ilustratzailea: Justine Brax

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2023

ISBN: 978-84-1370-480-7

Nasharen amak aspaldi utzi dio kantatzeari, haren aurpegiak kolore tristea hartu du eta bizipozik ez dauka. Amaren tristuraren jatorriaren bila, Ipar Amerikako herri indigenen historian murgilduko gara Nasha neskatilaren bitartez.

Egun batean, eskolarako bidean, Nashak gizon misteriotsu bat ezagutuko du, eta pertsonaia horrek bere herriaren sena berreskuratzen lagunduko dio.

Ipar Amerikako herri indigenei buruzko kontakizuna da honako hau. Larruzuriak han lehorreratu zirenean, haurrak lapurtu zituzten, lurraren jabe egin ziren, hizkuntza

debekatu zuten, istorioak ezabatu zituzten; horren ondorioz, indigenak mamu bihurtu ziren. Sustraiekin konektatzeko garrantziaz hitz egiten digu liburuak, eta, horietatik abiatuta, arbasoekiko lotura defendatzen du.

Nostalgiaz beteriko ipuina da, tonu poetikoan idatzia, bihotzari hitz egiten diona zuzen-zuzenean. Ipuina gaur egungo gizartean kokaturik badago ere, atzera egiten du salto, bidaia emozional eta oniriko batean. Formatu handiko irudiek ere azpimarratzen dituzte garai ezberdinetako bi errealitate kontrajarri hauek (gaurkoa zein iraganekoa: motelak eta indiarren tipiak, adibidez).

Liburua, azken finean, arbasoei eginiko omenaldia da. Agian, atzoko indiarra ezagutzean, irakurleek hobeto ulertuko dute gaurko indiar amerikarra zer den. Izan ere, iraganak gordetakoa ezagututakoan, hobeto ulertuko dira Nasharen amaren aurpegiko kolore tristearen arrazoiak.

10 URTETIK AURRERA

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria. Hondoratua

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2023 (Grej; 15)

ISBN: 978-84-9868-782-8

Kinneyk behin baino gehiagotan erakutsi digu nolako abilezia duen errealitatea, umorea eta ironia nahasteko. Eta hori da, hain zuzen ere, haren liburuen arrakastaren giltza. Hamabosgarrena den honetan ere halaxe egin du.

Abuztuko ostegun batean hasten da egunerokoa. Greg eta haren familia amonaren etxeko sotoan bizi dira, nahiz eta amonak etxean leku pila bat daukan. Familia osoa asper-asper eginda dago hor egoteaz, eta hara non suertatzen zaien osaba Garyren autokarabana erabiltzeko aukera.

Opor egunak zorigaitzez eta ezbeharrez beteta egongo dira, eta irakurleak primeran pasako du pasadizo bakoitzarekin. Are gehiago, seguru aski, askok eta askok bere familia-oporrak ere ezagutuko ditu liburuan gertatzen diren hainbat gorabeheratan.

Gregek, beste behin ere, bikain egingo ditu narratzaile-lanak testu eta irudi esanguratsuen bitartez. Horrekin batera, irakurlearen begirada ere zabalduko du planetaren ingurumenaren zaintzari dagokionez; bikainki jorratuko du gai hori bere kanpaldiko egunerokotasunean deskribapen hutsak txertatuz.

Turismo masiboa, beren habitatetik kanpo bizi diren animaliak, gehiegizko kontsumoa eta klima-aldaketa dira, besteak beste, *Gizajo baten egunkari* honetan zeharka lantzen diren gaiak, beti ere protagonistak bizi duen abenturari nagusitasuna kendu gabe.

Funtsean, pasadizo xeblebre eta umoretsuz betetako kontakizuna da eskuartean duguna, baina hori baino gehiago ere bada. Irakurtzen bukatzean, Kinneyren horrelako gehiagoren zain geratuko da irakurlea. Bilduma honetako liburu gehienen kasuan bezala, Miren Arratibelek egin ditu itzultzaile-lanak.

14 URTETIK AURRERA

Leante, Luis

Lurralde ezezaguna

Itzultzailea: Juan Luis Zabala

Barakaldo (Bizkaia): Giltza, 2023

ISBN: 978-84-83678-584-3

Eleberri honetan, Luis Leante sarituak maisuki lantzen du eskola jazarpenaren gaia, irakasle lanean jardundako urteek ematen dioten esperientziaz lagunduta. Hondares herriko industrialde batean gertatutako sute batekin hasten da narrazioa. Padilla agenteak lehen pertsonan kontatuko dizkigu lau urte lehenago jasotako gertaerak. Ikerketa garatzeko, kazetaritzaren egituratik gertu dagoen moldez baliatuko da egilea, eta, horretarako, hainbat iturritatik edaten duten testigantzek eskaintzen dioten informazioa erabiliko du kontakizunari erritmo bizia eta zehaztasuna emateko. Eta hau litzateke eleberri honen berezitasun nabarmenatariko bat: ikerketa-kazetaritzatik hurbil dagoen egituraz baliaturik, askotariko zantzuak eta aztarnak eskainiko dizkigu egileak, maisuki eskaini ere, intrigaren eta irakurlearen jakin-minaren mesedetan. Kapitulu bakoitza protagonista baten testigantzarekin hasten da, eta horrela ezagutuko ditugu haien kezka, burutazio eta beldurrak. Egileak emeki-emeki igorriko digu informazioa, eta hipotesi bat baino gehiago sorraraziko digu gure baitan, beti ere intriga eta irakurketaren erritmoa mantenduz.

Aipagarria da, era berean, nola uztartzen duen eleberriak intriga gazteen errealitatearekin: egileak sare sozialen inguruko gogoeta zorrotzak eskainiko dizkigu, bai eta irudi fisikoak eta itxurakeriak gazteengan duten eragin zuzenaz hausnartzeko aukera ere. Lurralde ezezagunak, Pandoraren kaxa balitz bezala, geure baitan ezkutaturik dauzkagun deabruak dihardu, horiek askatzeko dugun beldurrak, baina, beti ere, esperantzaren zirrikitua alde batera utzi gabe. Azpimarragarria da, bestalde, hizkuntzaren erabilera zehatza, oso hurbil baitago gazteen errealitatearekin. Ezin aipatu gabe utzi Juan Luis Zabalaren itzulpen egokia: bikain lortu du jatorrizkoaren erritmo bizi eta eraginkorra euskarara ekartzea. Gazte zein helduek gozatzeko moduko misteriozko eleberri honek, ez bairik gabe, hausnarketarako aukera paregabea eskainiko digu, azaleko geruzak gainditu ahala agerian uzten baititu gaur egungo gazteek bizi dituzten kezka eta ezinegonak.

16 URTETIK AURRERA

Cano, Harkaitz ; Fernando Bernuésen antzerkirako ideia batean oinarrituta
Mundua pitzatuta dago, baina hantxe gabiltza oinez

Ilustratzailea: Isabel Herguera

Donostia: Erein, 2023

ISBN: 978-84-9109-916-1

Liburuaren azalean adierazten den bezala, Fernando Bernuésen antzerkirako ideia batean oinarrituta dago Harkaitz Canok maisuki idatziriko album ilustratu hau. Ahaide baten galerak sortzen digun atsekabeaz dihardu liburuak. Inkomunikazioaz eta literaturak ariman uzten digun arrastoaz ere hitz egiten digu, hala nola, liburutegiez eta liburuzainez. Hortxe aurkituko ditugu klasiko handiak: Kafkaren *Metamorfosia*, Mary Shelleyren *Frankenstein*, Herman Melvilleren *Moby Dick*, Robert Louis Stevensonren *Altxor uhartea*, Alexander Dumasen “Hiru mosketariak”, Jules Verne eta Cortázar, besteak beste. Harkaitz Canok dioen bezala, “Liburua da atea eta liburua giltza. Misterioa eta soluzioa” (32. or.). Liburuko aita-alaben arteko harremana hotza da, urruna, egileak zuhurtziaz adierazten digun bezala: “Alfabetoan gehiago gustatzen zaizkit maiuskulak minuskulak baino, A-tik Z-ra, bion artean, akordeoi bat bezala ireki eta ixten dugu alfabeto osoa. Baina urrun gaude elkarrengandik, gainerako letra guztiek bereizten gaituztelako” (40 or.). Eta bien arteko zubia eraiki beharra dago, baina harreman hori ez da adreiluekin altxatuko, paperezko hegazkinekin eta letrekin baizik. Hala, bada, bien artean eraikitako istorioek eta ipuinek, liburuzainaren laguntza zuhurrarekin, irmotu eta indartu egingo dute lausotuta zegoen harreman hotz hori. Literaturan badaude gure bizitzan zehar gogaitzen eta samintzen gaituzten egoerei aurre egiteko erantzunak, historian zehar idazle handi askok idatzi baitute gizakiok kezkatzen gaituzten gai unibertselez: heriotzaz, doluaz eta saminaz. Liburu honek omenaldi xume bat egin nahi die idazle horiei. Album honen ilustrazioei dagokienez, Isabel Hergueraren eskutik datozkigu. Aipagarriak dira ilustratzaileak erabilitako tonu ilunak, desitxuratuak: espresionismotik edaten dute, eta era ezin hobean jazten dutenak istorioa. Ildo berean, liburuaren formatua eta edizio zaindua ere lagungarriak dira igorri nahi den sentipena adierazteko. Amaitzeko, Harkaitz Canok liburuan aipatzen duen bezala, hauxe esaten omen zuen Julio Ramón Ribeyrok, idazle oso jakintsu batek: liburu on batek ez dauka azalpenik, txar batek ez dauka aitzakiarik, eta erdipurdiko batek ez du inongo interesik... Ondorioz, soberan daude iruzkin guztiak.

Vignal, H el ene

Queen Kong

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Aduna (Gipuzkoa): Elkar, 2023

ISBN: 978-84-1360-272-1

H el ene Vignalek hamabost urteko nerabe baten sexualitatearen aurkikuntzari heltzen dio eleberri distiratsu honetan. Neska gazte honek bere burua ezagutu nahi du, bai eta bere gorputza ere, helburu bera duelarik beti: bera izatea. Bere gorputza ezagutze horretan, bere sexua ere ezagutu nahi du, bai eta senti dezakeen plazerra ere. Baina bere sexualitatea libreki bizi nahi duen neska honek jazarpena jasan beharko du.

Hainbat esperientzia sexual biziko ditu, sentitzen duen bezala eta nahi duen bezala. Ez da prest sentitzen harreman horietan maitasuna eta sentimenduak nahasteko, eta, horregatik epaitua eta seinalatua sentituko da. Institutuan, bere taldearen kode sozialak ez errespetatzeagatik, ulertezintasunarekin egingo du topo, eta baztertua izateko mehatxua nabarituko du.

Baina ikusi, ukitu, entzun eta dastatu egingo du. Aurrera egingo du, taldearen presioari eta epaiei amore eman gabe eta bere sakoneko izaera ezkutatu gabe.

Eleberriaren tonu errealistak eta lehen pertsonan idatzita egoteak lagundu egiten digute nobelako heroiak bizi duena sentiarazten.

Objektu literario batekin gozatzeko ez ezik, gai batzuk jorratzeko ere balioko digu nobela honek, hala nola, identitatea, errespetua, adostasuna, jazarpena, gazteek sexualitateari buruz dituzten pertzepzioak, norbere buruarekiko leialtasuna eta abar, oso gai esanguratsuak gaur egun.

Labur esanda, askatasun-nahiari buruzko nobela bizi bat da Miren Agur Meabek maisuki itzultitako liburu hau.

ZERRENDA BEREZIA

Brunhoff, Jean de

Babar erregea

Itzultzailea: Iñigo Satrustegi

Bartzelona: Picarona, 2023

ISBN: 978-84-9145-646-9

Haur literaturako pertsonaiarik maitatu eta ezagunenetako bat dugu Babar elefantea. Jean de Brunhoff (1899-1937) idazle eta ilustratzaile frantsesak sortu zuen, 1931n. Ideia, hala ere, haren emaztearena izan zen, Cecile de Brunhoffena; gauero-gauero kontatzen zien istorioren bat bere seme-alabei, eta Babar elefantetxoarena izan zen haietako bat.

Atzera begiratzea beti da ariketa aberasgarria; horregatik, klasikoek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu hemendik. Tradizioa guk uste baino presenteago dago egungo literaturan, eta ipuin klasikoak, nahiz eta gure kulturatik urrun egon, oso interesgarriak dira beste garai batzuetako testuinguruak ezagutzeko eta oraina hobeto ulertzeko.

Frantzia kolonialaren semea da Babar elefantea. XIX. eta XX. mendeen artean, haurrentzako album ilustratuen sorleku bikain eta oparo bilakatu zen Frantzia. Brunhoffek bere garaian modan zegoen bizitza burgesa irudikatu zuen, eta, horrekin batera, baita familiaren balio tradizionalak ere. Hori dela eta, pentsa dezakegu Babar zaharkiturik geratu dela zentzu askotan, adibidez genero-rolak edota gizartearen antolaketa aztertzen ditugunean.

Hala ere, Babar elefantearen istorioak berritzaileak izan ziren edukian, bai eta forman ere. Izan ere, gaurko album ilustratuen aitzindariak dira. Jatorrizko argitalpenak ordura arteko liburuak baino handiagoak ziren, eta irudiek ia orrialde osoa hartzen zuten; hori guztia izugarrizko berrikuntza izan zen garaiko haur literaturan. Irudiak xehetasunez beteak dira, eta asko aberasten dute narrazioa. Edukian ere badira berrikuntzak, orainaldian idatzitako testu laburrak lagungarriak baitira irakurlearen parte hartze aktiboa sustatzeko.

Sei liburuxka argitaratu ziren guztira. Honako hau Babar Erregea dugu. Istorio honetan, Babar eta Celeste errege-erreginak pozik bizi dira eraiki berri duten elefanteen herrialde idilikoan.

Babarren istorioak bizitzaz gozatzeko, zoriontsu izateko eta ezbeharrei aurre egiteko gonbidapena dira. Existentziari aurre egiteko moduari dagokionez, Babar eredugarria da oraindik ere, eta haren ekarpena baloratu beharrekoa da.

Igerabide, Juan Kruz

Begi bat kokotean

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Donostia: Ediciones Modernas El Embudo, 2023

ISBN: 978-84-126206-3-4

Mintegiko kideok beti hartu izan ditugu aintzat Igerabidek haur eta gazteentzako argitaratutako lanak. Hala, liburu oso gomendagarrien zerrendan izan ditugu, besteak beste, *Abezedario titirjario*, *Ur euriaren liburua* eta *Euskal herrietako ipuinak*. Oraingo honetan, atzera begiratu du autoreak, eta “bere oroitzapenekin jositako liburua” argitaratu du. *Faktoria* irratsaioan dio gertaera asko bildu dituela liburuan, eta leku-aldaketa bat edo beste ere badagoela.

Igerabidek bere haurtzaroan bizi izandakoak kontatuko dizkigu liburu honetan, diktadura garaian herri txiki batean jasotzen ziren eguneroko gertaerak, beren alde goxo eta garratzekin, bere memorian oroitzen dituen bezala. Hala, esate baterako, gerraz, erlijioaz, bihurrikeriez eta herriko festez ariko da.

Protagonistak bost urte dituenean hasten da liburua, eta seminarioan sartzen den arte egiten du aurrera, kronologikoki. Gerraondoko girora amore eman gabe moldatzen den haur bat ikusiko dugu, begi bat kokotean duena gertatzen ari dena antzemateko edo gertatu diren gauzak gogoratzeko. Izan ere, batzuetan, eskola edota kalea oihan hutsa zen.

Irakurlea Igerabidek bizitako errealitatearen begiradaz elikatuko da, eta bizipen horiek, duda gabe, ate berriak zabalduko dizkio bati baino gehiagori.

Hamar urte arteko biografia hau hogeita lau pasarte laburretan banatu du Igerabidek. Pasadizo bakoitzari Elena Odriozolaren irudiak ematen dio hasiera. Idazle eta irudigile trebeak dira biak, eta hala erakusten dute oraingo honetan ere.

Liburuan jasotako abenturek, ume, guraso, aitona-amona zein irakasleei gozatzeko aukera emateaz gain, diktadura gogora ekartzeko ere balioko dute. Garai bateko jendea nola bizi zen jakiteko liburu paregabea da, eta, noski, helduekin komentatzeko ere bai.

